

HABE Liburutegiak hitzarmena sinatu du lau ikerketa-zentroekin

Euskararen inguruko ikerketan elkarlanean aritzeko hitzarmena sinatu du HABEk erakunde hauekin: Asmoz Fundazioa (HIZNET - Hizkuntza Plangintza Graduondoko ikasketak direla eta), Baionako Iker-CNRS zentroa, Soziolinguistika Klusterra eta Mintzola Fundazioa.

Hitzarmenen helburu nagusia da HABE Liburutegiaren eta aipatutako lau erakundeen artean elkarlanean aritzea. Liburutegia lau erakundeen bibliografia eta dokumentazio hornitzaile gisa arituz, beti ere Liburutegiaren esparru zientifikoaren baitan: Eleaniztasuna, Hizkuntzen Didaktika, Soziolinguistika, Ahozkotasuna, Euskara... Lau erakundeek, beren aldetik, HABE Liburutegiko funtsak erabiliko dituzte eta horien berri emango dute. HABEren izenean, Lourdes Auzmendi Hizkuntza Politikarako sailburuordeak azaldu duenez, HABEren liburutegia hizkuntza gaietan espezializatua dago eta hizkuntzen ikerketan dihardutenentzat erreferentea da: "Publikoa da eta HABEri nahiz euskaltegiei begira lan egiteaz gain, hizkuntzekin ikerketan dabiltzan sektoreekin ere harreman estuak ditu eta oro har gizarteak dituen hizkuntz premiei erantzuten saiatzen da. Une honetan 6.000 bazkide ditu eta 40.000 dokumentu bildu ditu HABE Liburutegiak eta, azken urteotan, teknologia berriak lagun, bere funtsen erabilera ez presentziala bultzatzeko hainbat egitasmotan murgilduta dago: estatu mailan puntako liburutegisarea den REBIUNeko partaide da (Red de Bibliotecas Universitarias); Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean parte hartzen du liburutegien arteko maileguari dagokionez; hitzarmenak tarteko, ikertaldeekin elkarlanean ari da eta zerbitzu zuzenak eskaintzen dizkie ikerlariei; ALERTAK bezalako on-line zerbitzu azkarra eskaintzen du; eta abar. Hori guztia ikusirik, benetan harro egotekoa da eta eskertzekoa ere bai HABE Liburutegiaren lana".